

**KILL,
KERRA
eta
KARMA**

Abertzaletasun pandemikoaren psikodharma

KILL: Ni jaio nintzen egunean ...

KERRA: Ni hil nintzen.

KILL: Izotzezko puska handi batean jaio nintzen.

KERRA: Nik urtu nuen. Izotzezko puska hori.

KILL: Hotz handia egiten zuen.

KERRA: Oraindik ere egiten du batzuetan.

KILL: Autobusaren zain egoten naiz askotan.

KERRA: Aspergarria da.

KILL: Oso.

KERRA: Aspergarria.

KILL: Zenbat urte ditudan ahaztu egiten dut askotan.

KERRA: 40 dauzkazu.

KILL: Badakit.

KERRA: Orduan zer da ahaztu duzuna?

KILL: Hodeiak kontatzea zaila dela.

KERRA: Zeruan bakarrik daude hodeiak.

KILL: Eta ferietako barraketan.

KERRA: Jatekoak dira horiek.

KILL: *(Abestuz) Unchain my heart ...*
(KERRA-k KILL-i begiratuko dio)

KILL: Unchain my heart... *(Isildu egingo da bat batean)*
(KERRA-k publikoari begiratuko dio)

KILL: Ez da erraza hemen egotea.

KERRA: Batzuetan bai. Beste batzuetan ez.

KILL: Publiko maitea, zuek aspertzen hasi aurretik ...

KERRA: Aspertu ondoren beranduegi izango baita ...

KILL: Antzerki absurdo eta poetikoa alde batera utzi eta Ipuin bat kontatuko dizuegu.

KERRA: Ah, bai?

KILL: Bai. Irakaspen eta guzti.

KERRA: Irakaspen eta guzti?

KILL: Bai ... Bai bai.

KERRA: Baina hori modaz pasata dago.

KILL: Klasikoek irakaspen asko ekartzen dituzte.

KERRA: Eta nola sortuko duzu irakaspenera?

KILL: Ez hanka ez buru ez duen mundu honetan?

KERRA: Horixe bera!

KILL: Mmm ... bazen behin Kilkerra ...

KERRA: ... Beltza eta alperra.

KILL: Ez!

KERRA: Ez!

KILL: Beltza eta ederra ... Bazen behin kilker beltz eta eder bat. Egunero - egunero kaiolako atea irekitzen zioten eguerdiko hamabietan. Atea ireki orduko baserriko baratzerara joaten zen eta letxuga eder batetako hosto berde eta ederra hartu eta kaiolara itzultzen zen jatera. Letxuga jan eta gero ...

KERRA: Itxoin! Zergatik itzultzen zen kaiolara?

KILL: Kaiolan gustura bizi zelako.

KERRA: Ezinezkoa da hori.

KILL: Istorio honetan bai ordea.

KERRA: Ezta pentsatu ere!

KILL: Ez pentsatu orduan. Eta ez zeukan izenik gainera.

KERRA: Ze pena.

KILL: Bai. Handia pena. (*Abestuz*) Ay qué pena tan grande, qué pena tan grande, qué pena tan grande, el grillo sin nombre...

(*KERRAK hotz begiratuko dio*)

KILL: (*Abestuz*) O what a pitty, what a pitty, what a pitty. The cricket without name.

(*KERRAK hotz begiratuko dio*)

KILL: (*Abestuz*) A ze pena, a ze pena, a ze pena izenik gabeko kilkerra...

KERRA: Jarraitu, segi.

KILL: Istorio honetan bai.

KERRA: Bai zer? Kaiolara itzultzearena edo eta izenik ez izatearena?

KILL: Gutxi iruditzen al zaizu?

KERRA: Gutxi zer ordea? Has gaitzen batetik mesedez. Kaiolarena edo izenarena.

KILL: Batak bestea bultzatzen du derrigorrez. Kaiolara letxugarekin itzultzen den kilkerrak izenik ez duelako egiten du ziur aski, zenbaki bat besterik ez delako. Bere identitatearen hutsuneak horretara eramaten duelako.

KERRA: Beraz, kaiolan gustura bizi zen gure izenik eta identitaterik gabeko kilker beltz eta ederra.

KILL: Gutxi gora behera. Ez zeukan izenik baina ezta edukitzeko inolako beharrik ere. Egunero eguzki izpiekin esnatu, bere hego musikadunak astindu eta eskerrak ematen zizkion unibertsoari beste egun batez bizirik egoteko aukeragatik. Bere goizeroko yoga ariketak egin eta ur pixka bat edan ondoren hegoak astinduz kantu berriak entseatzen zituen, basoan kontzertu bat emateko aukera noiz iritsiko zain. Artista hutsa zen baina ez zuen artista ona zenik sentitzen. Ez zuen bere buruarengan behar bezala sinesten eta kantuak beti erdizka uzten zituen. Auto estimu falta zuen bere gurasoek ez zutelako inoiz bere artista sena kontuan hartu. Horregatik ez

zuen kantu osorik sortzen. Konturatzen zenerako eguerdiko hamabiak iritsi eta goseak jota, amaitu gabeko kantua utzita korrika joaten zen letxuga hostoaren bila. Letxugarekin kaiolara itzuli eta jan eta jan egiten zuen. Janaria bukatu orduko gorputzaren pisuak ez zion ezertarako indarrik uzten eta loak hartzen zuen. Arratsaldea, hildako bere ama gogoratuz hiltzen zuen.

KERRA: Hil? Nola hil?

KILL: Hitz egiteko modu bat da. Arratsaldearen asperdura honela gaintitzen zuela esan nahi nuen ... badakizu, gazteleraz erabiltzen den espresiotik hartu dut ... “matar la tarde” gizona!

KERRA: Hasi gara espainolismoekin?

KILL: Barka. Erdarakadekin esan nahiko duzu, ezta?

KERRA: Bai, baina erdarakada espresioa ez da egokia, euskara ez den edozein hizkuntzaren inguruan ari bai da, eta kasu honetan gazteleraz ari garenez espainolismo hitza egokiagoa deritzot. Edo gaztelerakada bestela ...

KILL: Istorioaren haria moztu didazu erabat. Ez dakit nondik ari nintzen ere.

KERRA: Hildako ama oroitzuz pasatzen zuela arratsaldea.

KILL: Horixe. Garrantzitsuagoa da esaten ari nintzenaren mamia korrekzio gramatikala baino.

KERRA: Hizkuntzaren gramatika zaintzea garrantzitsua da ere.

KILL: Noski, baina nire lehenengo bakarrizketatxoaren unerik dramatikoenan moztu didazu hitza zure gramatikaren inguruko iritziarekin. Arrisku artistikorik gabe askatasunik ez.

KERRA: Eta hori zer da? Garai berrien manifestazio lema?

KILL: Lema? Edo goiburua? Lema erabili daitekeen arren goiburua espresioa zuzenagoa da ezta?

KERRA: Bai, baina ulergarriagoa da lema.

KILL: “Arratsaldea hildako bere ama oroituz hiltzen zuen” artistikoki ederragoa den bezala nahiz eta hil hitzarekiko errepikakorra izan.

KERRA: Barka.

KILL: Ondo da. Arratsaldea hildako bere ama oroituz pasatzen zuen.

KERRA: Ondo, baina “zendutako” hobe.

KERRA: Arratsaldea zendutako bere ama gogoratzuz pasatzen zuen. Ondo?

KERRA: Hobeto ... “oroituz” ahaztu duzu berriz ere.

KILL: Arratsaldea “zendutako” bere ama “oroituz” pasatzen zuen.

KERRA: Askoz hobeto.

KILL: Nahiago dut “hiltzen zuen”.

KERRA: Ez da onargarria.

KILL: Ondo da. Arratsaldea “horrela” pasa ondoren afaltzeko zer izango ote zuen pentsatzen hasten zen.

KERRA: Letxuga noski.

KILL: Ez, Kilkerrek janari hondakinak, fruituak, sustraiak edo eta beste intsektu batzuk ere jaten dituzte.

KERRA: Aske dauden kilkerrek esan nahiko duzu.

KILL: Bai, horrexegatik jaten zuen pentsua gure kilkerak. Baserriko jabeak jaten ematen zion pentsua. Pentsu konposatu berezia, gizakiek jaten dituzten kilkerrei espresuki ematen zaien pentsu mota hori hain zuzen ere.

KERRA: Kilkerrei pentsua ematen diete jateko? Gizakiek jateko elikatzen dituzte?

KILL: Bai. Entomofago baten baserrian bizi zelako.

KERRA: Ento zer? Ze kristo da hori?

KILL: En-to-mo-fa-go... Danimarkan, Finlandian, Austrian edo Herbeheretan kilkerak eta beste intsektu batzuk jaten dituzte. Modan jarri den elikadura mota berri bat da, gizakiek proteinak jateko beste modu bat.

KERRA: Aaaagh, ze nazka!

KILL: Ze atzeratua zauden. Asia, Afrikan eta Hego Amerikan ere ohikoa izan da betidanik. Mundu osoan esango nuke nik, European ezik. Ongi etorri XXI. Mendera.

KERRA: XXI. Mendera? Eta zer ikusirik dauka XXI. Mendeak intsektuak jateko moda berriarekin? Intsektuak jan?! Gizakiok intsektuak jan?! Erotu gara ala? !

KILL: Karakolak jaten ditugun modu berberean motel. Legorretako zure aitona ez al zituen jaietako karakolak kazuela erraldoi batetan prestatzen ala? Eta zuk txiki txikitatik gustura jan gainera.

KERRA: Ez da gauza bera. Karakolak bere saltsa ederrarekin jaten dira trikitixa eta ardo edo eta sagardo onarekin lagunduta.

KILL: Noski, gure jatorrasunaren beste adibide maitekor bat. Euskaldunek mahaiaren inguruan ardo edo eta sagardo bustita egiten duguna munduko gauzarik ederrena da baina beste batzuk kilkerrak edo dena delakoak jaten badituzte basati hutsak dira ezta? Karakolak jaten zenituen eta kito. Eta karakolak jaten badituzu berdin - berdin jan ditzakezu kilkerrak, matxinsaltoak edo dena delakoak.

KERRA: Buagh.

KILL: Eta haria moztu didazu berriz ere. Irakaspena duen ipuin bat kontatzera etorri gara ...

KERRA: Zara.

KILL: Naiz? Ez al didazu lagundu behar ala?

KERRA: Ez. Banoa fartsa krudel honetatik.

(KERRA badoa)

KILL: Zoaz bai, zure aurreiritzi beganoen besoetara.

KILL: *(Publikoari)* Arratsaldea hildako bere amarekin gogoratuz hiltzen zuen. Arratsaldea zendutako bere ama oroituz pasatzen zuen ...*(Atzera begiratuko du, KERRA desagertu den lekurantz)* Kerra!

KERRA OFF: Ez nago!

KILL: Arrazoi zenuen! Zuk proposatutakoa politagoa da! Kerra!

(Badoo Kerra-ren bila)

KILL: Kerra!

(Isiltasuna. KILKERRAREN kri-kri-a entzuten hasiko gara. Benetako KILKERRA agertuko da)

KILKERRA: Kaixo guztiei. Ni naiz kilkerra ... eta zuek ez. Ipuina kontatzearen aitzakiarekin agertu dira bi komiko hauek agertokira eta ez dute usaindu ere egiten kilkerra izateak zer suposatzen duen. Antzerkilari guztiek bezala uste dute beraiek azaltzen dituzten egoera eta burutazioek munduaren isla emozional, erreflexibo, filosofiko, espiritual edo dena delakoa izango direla. Ba ez. Ez dute ez usaindu ezta benetan asmatzen ere. COVID 19-ak sudurzuloak ezereztatu dizkiete biei eta ez dute naturaren benetako arnas bizigarria sumatu ere egiten. Hegaletaraino nago antzerkizaleen buru-lastoez. Bai, BURU LASTOEZ ... PAJA MENTALEZ.

Ezkor xamar agertu naizela? Zer espero zenuten bada? Kilkerrok gure eskubideak ditugu. Bazen behin kilkerra, bazen behin kilkerra ... buagh! Nire ama hil zela eta arratsaldeak zendutako ama oroitzuz pasatzen nituela? Baliteke, baina garai hori amaitu zen. Eskuin hegaleko minak hor jarraitzen du bai... kri - kri egiten dut baina soinua ez da behar bezala irteten. Kri-kri egin bai baina ezin dut behar bezala kantatu.. edo krintatu esan beharko nuke. Krintatu? Hara! Hitz berri bat Kilkertzaindiara bidaltzeko. Baina iritsiko da berriz ere kaiolatik betiko irten eta eguzkiaren izpien irribarrearekin mundu guztiarentzat krintatzeko ordua. Entzungo dute nire kantua behar bezala eta txundituta utziko ditut denak.

Jainkoa testigu ez dudala inoiz gehiago goserik pasako! Jainkoa testigu, gizakiek Kilkerren bizitzeko modua bakean utz dezaten krintatu eta krintatu egingo dudala, krintatze hutsak herioren besoetara eramaten banau ere! Jainkoa testigu kilkerren askatasunaren alde borroka egingo dudala gure kilker nagusiek labezomorroekin negozioak egiten jarraitzen badute ere! Kaka zaharra! Politika malapartatu ustela ... Banoa nire kaiolara, letxuga jatera, ea behingoz kanta oso bat konposatzea lortzen dudan.

KRIIAAAOOOUUUUMMMMMM....KRIIAAAOOUUMMM,...
KRIIAAAOOOUUUUMMM,...

(Badoa agertokitik. KILL dator Kilker moderno baten itxuraz jantzita. Betaurreko beltzak, antena pare bat ... gauza asko ez. Bere itxuraldaketa fisikoa erakutsiko duten detaileak bakarrik).

KILL: Kerra! Kerra! Kerra! *(publikoari)* Ez zenuten Kerra inondik ikusiko ezta?... Hau da hau kilker burugogorra!... Kilkerra esan dut?... Kilkerrak gara gu ere?... Kilker itxura ez duten Kilkerrak?... Kilkerren inguruan hainbeste hitz egin eta kilker bihurtu naiz ni ere? Ai ama, eta zer egin behar dut nik orain? Metamorfosiaren erdian gaude hortaz? Iritsi da unea? KRI-KRI-KRI...

(Traje eta gorbatadun gizonezko bat agertuko da)

TRAJEDUNA: Kaixo, zu al zara Kill?

KILL: Kri.

TRAJEDUNA: Zer?

KILL: Barkatu, baietz esan nahi nuen. Hala uste dut behintzat.

TRAJEDUNA: *(Bere maletatxotik karpeta bat ateraz)* Ea, ikus dezagun. Kilkerlarizatik nator zure metamorfosiaren nondik norakoak aztertu eta fitxa egitera.

KILL: Egia da beraz? Kilker bihurtu naiz?

TRAJEDUNA: Bistan da baietz. Baina goazen harira.

KILL: Haria berriz?

TRAJEDUNA: Zer?

KILL: Ezer ez. Nire kontuak.

TRAJEDUNA: Zure kontuak nire kontuak dira ere hemendik aurrera. Kontuan har ezazu.

KILL: Kontuan hartzeko kontuak. Errepikakor xamarra zara ezta?

TRAJEDUNA: Bizitza errepikakorra da beti eta ni naiz hemen galderak egiten dituen.

KILL: Barkatu.

TRAJEDUNA: Noiz hasi zinen arraro sentitzen?

KILL: Hasieran.

TRAJEDUNA: Zeren hasieran? Konkrezio gehiago beharko nuke.

KILL: Jaio eta handik gutxira. Baina ez dut zehazki gogoratzen.

TRAJEDUNA: Kontraesan hutsa da hori. Noiz izan zen gogoratu beharko zenuke.

KILL: Denbora erlatiboa da beti.

TRAJEDUNA: Denbora, denbora da eta kito.

KILL: Eta zer da denbora zure ustez?

TRAJEDUNA: Esan dizut galderak nik egiten ditudala.

KILL: Bai, noski. Kilkerstolan hasi nintzenean izango zen. Hiru urte besterik ez nituen.

TRAJEDUNA: Kilkerstolan? Ezinezkoa da hori. Hiru urterekin ez zinen Kilker oraindik. Ikastolan izango zen alajaina.

KILL: Hala izango da zuk badiozu. Ez dakit ...

TRAJEDUNA: Zer da ez dakizuna? Hala zen eta kito. Oraindik kilker bihurtu ez den norbait ikastolara doa eta ez Kilkerstolara... de toda la vida.

KILL: De toda la vida?

TRAJEDUNA: Barka, kirioak dantzan ditudanean erdarako espresioek alde egiten didate ezustean. Nire aitak ez zekien hitzik ere euskaraz eta nahi gabe alde egiten didan ohitura da ... eta Madrilen pasa nituen urteak ere, noski.

KILL: Madrilen? Zertan?

TRAJEDUNA: Euskarazko eskolak ematen nituen hango euskal etxeko euskaltegian.

KILL: Ulertzen dut ... Beno ez, ez dut ulertzen.

TRAJEDUNA: Ez duzu zertan ulertu. Lehen esan bezala ni naiz hemen galderak egiten dituena.

KILL: Noski, noski. Barka.

TRAJEDUNA: Ea ba, non gindoazen?

KILL: Madrilen ematen zenituen eskolek eta zure aitaren euskararekiko ezagutza ezak nola batzuetan euskainolez hitz egitera bultzatzen zaituzten, zuk nahi ez duzun arren.

TRAJEDUNA: Ez, ez zen hori. *(Telefonoak joko du)* Bai, esan? ... bai ... ez, ... bai, ... ez, ... ez dut uste. Bai noski, ... bai, bai ... saiatuko naiz. Ez da erraza izango ... bai noski, ... baietz la hostia!... barka, barka, badakizu tratamenduak nerbioak kirioka jartzen dizkit eta ... bai, bai ... txertoaren efektuak ... noski bai noski ... Agur bai.

(Telefonoa esekiko du. Horren ondoren poltsatxo bat aterako du jakaren poltsiko batetik, mahai gainean hauts batzuk bota eta txartela batekin hautsak manipulatu ondoren, diru billete batekin arraia pare bat sartuko ditu sudurzuloetan)

TRAJEDUNA: Aaaah ...

KILL: Barka baina ...

TRAJEDUNA: Zer?

KILL: Ezer ez.

TRAJEDUNA: Ea ba. Kilkerstolan hasi zinenean, barka ikastolan hasi zinenean hasi zinen arraro sentitzen ...

KILL: Bai.

TRAJEDUNA: Nola definituko zenuke zure arrarotasuna?

KILL: Mundu honetan egon arren mundu honetako parte ez nintzela sentitzen nuen. Nire gurasoak eta anaia ezezagunak balira bezala ikusten nituen ...

TRAJEDUNA: Anaia bat duzu orduan.

KILL: Bai.

TRAJEDUNA: Eta zergatik ez didazu lehenago esan?

KILL: Ez nuen uste inkestarako garrantzitsua izango zenik.

TRAJEDUNA: Ez da.

KILL: Orduan?

(telefonoak joko du berriz ere)

TRAJEDUNA: Bai?... bai. Berriz?!...Esaiozu dosia pixkanaka jaisten hasteko ... bai, pixkanaka jaisten badu sindromeak ez dizkio burua eta emozioak blokeatuko ...bai ...bai...baai...baietz la hostia! Barka ... bai ni ere berdin nabil dosiarekin ... ikusten duzu ez dela erraza ... bai, eskerrik asko, bai agur!

(Telefonoa esekiko du. Ondoren bihotz gorri formako txupa txus bat aterako du poltsikotik, ireki eta txupatzen hasiko da)

TRAJEDUNA: Barka, zure anaia beraz. Zure anaia zaharragoa ala gazteagoa?

KILL: Bi urte zaharragoa.

TRAJEDUNA: Zure anaiarekin zenuen erlazioa ez zen erraza izan, nahiz eta zuk ez zenion inoiz bere zakartasunari, bere gogortasunari erantzuten. Zure pertsonalitatea indartzeko zuk karmatikoki aukeratu zenuen anaia da ... ezta?

KILL: Karmatikoki?

TRAJEDUNA: Karma moduan.

KILL: Karma Catalunyako emakumeren bat da?

TRAJEDUNA: Catalunyako zer? Ez Karma, Karma,Karma!

KILL: *(Bere ezjakintasuna disimulatuz)* Ah bai, Karma ... barkatu.

TRAJEDUNA: Barkatu? Zer da barkatu behar dena? Kulparekin oso lotuta zaudela dirudi ... hori izan liteke zure karmaren adibide bat adibidez.

KILL: Hitz egiteko modu bat da, besterik ez.

TRAJEDUNA: Erdaratik eta Ingeleratik eta edukazio politikoki zuzenetik eta kulpa judu-kristauarengandik datorren espresio antzua inondik inora. Barkatu, barka, ... antzuak biak ala biak.

KILL: Zuk hala badiozu ...

TRAJEDUNA: Nik ez. On Kilker Bariandiarain gure kilkertropologo ezagunaren inbestigazioetan oinarritutako teoria bat da. Nik ez dut gauza hauetan sinesten baina funtzionario xume bat besterik ez naiz eta soldata bat irabazi beharra daukat etxekoei jaten emateko.

KILL: Matxista xamarra da zure familiarekin daukazu erlazio deskribatzeko modua ez duzu uste? Zure emazteak ez du lanik egiten ala?

TRAJEDUNA: Hasi gara XXI. Mendeko new age teoria horiekin?

KILL: New Age? Barkatuko didazu baina ...

TRAJEDUNA: Y dale dena barkatzen edo guztiagatik barkamena eskatzen ibili beharreko moda judu-kristauarekin ...

KILL: Esan nahi dudana da New Age deitzen duzun horrek baduela bere fundamentua. Gizakia ...

TRAJEDUNA: Eta emakumea.

KILL: ... Eta emakumea, garapen espiritual garrantzitsu batean murgiltzen ari dira. Horrek orain arteko egitura eta patroia patriarkalak, politikoak, ekonomikoak, erlijiosoak eta zientifikoak deuseztatzen eramango gaitu. Ezin dugu arreta galdu jokabide, ohitura, eta pentsamendu mota guzti hauengandik. Ezin dugu ihes egin eta ezer gertatuko ez balitz bezala jokatu.

TRAJEDUNA: Eta?

KILL: Zer?

TRAJEDUNA: Zer esan nahi didazu guzti horrekin?

KILL: Ezin dugula horrela jarraitu!

TRAJEDUNA: Ni zure galdetegia egin, zure fitxa bete eta nire lana amaitu ondoren pareko tabernan kafea eta tortilla espainiar pintxo bat jatera besterik ez naiz etorri.

KILL: Tortilla espainiarra?

TRAJEDUNA: Bai, espainiarra.

KILL: Ez da Espainiarra, patata tortilla da besterik gabe. Hau da Euskaldunek dena politizatzeke daukazuena mania nazkantea.

TRAJEDUNA: Daukazuen? Zu ez al zara euskalduna ala?

KILL: Baietz dirudi ...

TRAJEDUNA: Orduan barkatu baina ...

KILL: Ea nor ari den barkamena antzuki eskatzen orain!

TRAJEDUNA: Touche!

KILL: Jesús.

TRAJEDUNA: Esan nahi nuena da ni Madrilera joan nintzenean patata tortillari tortilla española deitzen ziotela. Eta oso polita iruditu zitzaidan. Tortillak beste nortasun eta garrantzi bat hartu zuen bat-batean nire aburuz.

KILL: Beraiek asmatu ez zuten zerbaiti betiko kutsu nazionalista, inperialista eta zalgiduna emateagatik?

TRAJEDUNA: Zalgiduna?

KILL: Zalgia, ...Kaspa! Kaspaduna, kasposoa!

TRAJEDUNA: Ea nor ari den orain euskainolez hizketan?

KILL: Touche!

TRAJEDUNA: Jesus!... ea ba, esan, nork asmatu zuen ba tortilla espainiarra?

KILL: Nafarroako emakume bati omen dagokio patata tortillaren ezagutzen den lehenengo errezeta.

TRAJEDUNA: Ja,ja,ja,ja... kontu zaharra da hori konpai!

KILL: Zumalakarregik eskatuta sortu zuen emakume batek 1835.ean. lehen Karlistadan hain zuzen ere.

TRAJEDUNA: Hori orain gutxi arteko teoria izan da baina badira urte batzuk 1798.urtean Extremaduran sortu zela jakin zenetik.

KILL: Ah bai?

TRAJEDUNA: Bai. Espainiarra da beraz tortilla.

KILL: Eta zer?

TRAJEDUNA: Akabo zure harrotasun nazionalista. Ez dut ironikoki esan tortilla espainiarra. Benetan espainiarra delako baizik.

KILL: Inkisizioa bezala orduan.

TRAJEDUNA: Inkisizioa ez da jateko plater bat.

KILL: Eta?

TRAJEDUNA: ETA ezta ere.

KILL: Jaki astunak biak ala biak.

TRAJEDUNA: Jateko platerak balira bederen ...

KILL: Hala izango balira ere, jateko astunak biak.

TRAJEDUNA: Horretan ados gaude. Karakolak jatea baino askoz ere astunagoak.

KILL: Karakolak ... nik gustuko ditut karakolak (*KERRA-ren oroitzapena dator kio burura*) Eta nire lagun KERRAK ere bai. Baina egia da astun xamarrak bihurtzen direla sabelean.

TRAJEDUNA: Sugearen haragia bezain astunak?

KILL: Edo gehiago.

(Ixiltasuna)

(TRAJEDUNAK tortilla patata ogitartekoa aterako du eta jaten hasiko da. KILL-ek sagardo botila atera eta bere edalontzian zerbitzatzeko hasiko da. Batak tortilla jan eta besteak sagardoa edan. Alderantziz gero. Batak sagardoa edan eta besteak tortilla jan).

KILL: Ederki gaude orain inondik inora.

TRAJEDUNA: (*Korroskada bat bota ondoren*) Men sana in corpore sano.

KILL: Ya lo creo.

TRAJEDUNA: Erdarakada hutsa hori ere.

KILL: Izerditu egiten dit.

TRAJEDUNA: Zer?

KILL: Me la suda.

TRAJEDUNA: Zein baldarra den gaztelerazko espresio hori.

KILL: “Txortan” espresioa bezain zakarra ...

TRAJEDUNA: Arrazoi duzu. Denok gara baldarrak eta denok gara dotoreak.

KILL: Denok gara gizaki ez perfektu.

TRAJEDUNA: Denok gara Malcolm X.

KILL: Ixa ... euskaraz Ixa.

TRAJEDUNA: Barka.

KILL: Barka? Zergatik barka? Garena gara eta kito. Hizkuntza, pentsamenduak, janariak, ekintzak, dena delakoak zaindu behar ditugula munduaren transformazioa bideratzeko? Ados. Baina ez gara perfektuak eta gure hanka sartzeengandik ikasten jarraitzea da gure bidea, gure patua, gure ...

TRAJEDUNA: Gure traktua.

KILL: Baliteke. Adarretatik joaten ari gara ezta? Zu zure inkesta betetzera etorri zara eta beste kontu batzuen inguruan gabiltza.

TRAJEDUNA: Arrazoi duzu. *(paper bat aterako du)* Sinatu paper honetan eta kito.

KILL: Baina ez duzu inkesta behar bezala bukatu.

TRAJEDUNA: Ez da beharrezkoa. Dena ondo dagoela esango dut. Atsegina izan da zure konpainia.

KILL: Estimutzen da.

(KILL-ek papera hartu eta sinatu egingo du. Itzuli egingo dio gero)

KILL: Tori.

TRAJEDUNA: Eskerrik asko. *(Besarkada bat emango dio)* Agur.

KILL: Agur lagun. Nola duzu izena?

TRAJEDUNA: Iñigo.

(Karma agertuko da. Kilker bihurtuta bera ere)

KARMA: Kaixo, bona nit.

KILL: Kaixo Karma! Aspaldiko! Zu ere Kilkertuta zaude?

KARMA: Kilkertuta?

KILL: Bai! Antenak dauzkazu buruan, nik bezala.

KARMA: *(Buruko antenak ukituz)* Egia! Ez naiz konturatu orain arte. Ze lotsa. Guapa al nago? Eta zer esan nahi du honek?

KILL: Ez dakit. Kerraren bila atera naiz eta hona itzultzean transformatuta nengoela konturatu naiz.

KARMA: Ah. Nor da zure lagun hau?

IÑIGO: Kaixo, Iñigo da nire izena, Kilkerlaritzatik nator eta Kilker transformazioa gertatu zaizuen orori inkesta egiten ari naiz. Oraingoz ez da inkesta loteslea baina denborarekin ...

KERRA: Loteslea? Ze collons da hori?

KILL: Gazteleraz vinculante.

KARMA: Buagh!

IÑIGO: Ez duzu lotesle hitza gustuko?

KARMA: Ez. Euskeraren batutasunaren hitz asko ez ditut gustuko. Horrela ez gara inoiz herritarrengana iritsiko.

IÑIGO: Harrigarria da zein ongi menderatzen duzun Euskal hizkuntza.

KARMA: Hizkuntza ez da menderatu behar, erabili baizik. Gehiago hitz egin eta gutxiago menderatuko bagenu gaitz erdi, ez duzu uste?

IÑIGO: Baliteke. Baina nolatan hitz egiten duzu hain ongi euskaraz?

KARMA: Maitale euskaldun ugari izan dut iraganean.

KILL: Ugari? Nola ugari? Nitaz gain beste maitale euskaldun batzuk izan dituzu ala?

KARMA: Noski. Eta Kerra izan zen nire maitale horietako bat. Por tzierto non dago Kerra?

IÑIGO: Por tzierto espresioa oso itsusia da. Hobe litzateke ...

KARMA: Zure trajea ere oso itsusia da eta ez dut ezer esaten horri buruz.

KILL: Kerra? Zure maitalea ere? Eta noiz esan behar zenidan?

KARMA: Orain.

KILL: Orain? Eta zergatik orain?

KARMA: Orain liberatu naizelako. Sexualki esan nahi dut. Beno, betidanik nengoen liberatuta baina hainbeste euskaldunekin oheratzeak emakumearen liberazioaren borroka ahaztu arazi zidan.

KILL: Kontraesan hutsa da hori. Euskaldun askorekin oheratu bazara horrek esan nahi du beti egon zarela liberatuta.

KARMA: Ez da kantitate kontua, kalitate kontua baizik.

IÑIGO: Barkatuko didazue baina uste dut hobe izango dela ni hemendik joatea. Zuen kontu zaharrez hobeto eta lasaiago hitz egin ahal izango duzue.

KARMA: Ezta pentsatu ere! Entzun ditzala entzun beharrekoak honek. Bada garaia gure erlazioaren nondik norakoak behar bezala argitzeko.

KILL: Erlazio? Ze erlazio? Zu eta ni aspaldiko lagunak besterik ez gara. Denbora asko da gainera zure berririk izan ez dudala.

KARMA: Lanpetuta ibili naiz oso. Kilkertalunyako galdeketa prestatzen ibili nintzen, nire osaba atxilotu eta kartzelan sartu zuten, epaiketek, kartzelarako bisitek ... denbora asko kendu didate.

IÑIGO: Gaixoa. Asko sufrituko zenuen.

KARMA: Ze gaixo eta ze collons? Zu bezalako funtzionarioek ez diguzue bat ere lagundu gure herriaren askatasunaren borroka baketsuan.

IÑIGO: Eta nola dakizu ni funtzionarioa naizela.

KARMA: Esan dizut maitale euskaldun asko izan ditudala.

KILL: Ea, lasaitu gaitezen Karma. Iñigo gizon zentzuduna eta profesionala da oso. Gainera, inkesta behar bezala egin ez arren, ontzat eman du eta ez du nire transformazioaren inguruko iritzi txarrik emango.

IÑIGO: Egia da, bai.

KARMA: Egia? Zer da egia? Burua jan dizute Kill. Tipo hau boterearen zerbitzuan dabilen tipo gris malapartatu bat besterik ez da.

IÑIGO: Aizu, barkatuko didazu baina ...

KARMA: Baian zer? Hemendik irten eta zure nagusiei esango diezu gure transformazioa ez dela ona gizartearen garapen ekonomikoarentzat eta hobe izango dela txertoa jartzea.

KILL: Ze txerto?

KARMA: Txertoa Kill, Txertoa! Ez zara ezertaz enteratzen. Inkesta egin dizun bitartean hauts batzuk sartu al ditu sudurzuloetatik?

KILL: Bai.

IÑIGO: Ez da zuk uste duzuna.

KARMA: Ah, ez? Zer da ba?

IÑIGO: COVID 19-a bi aldiz pasatu dut dagoeneko eta medikamentu berri baten dastatzaile bolondresen artean nago. Kilkerlaritzaren proiektu berri bat da. Funtzionario bezala lan egiten uzten didate medikamentua sudur zuloetatik egunean hiru aldiz sartzen badut.

KILL: Hori suizidio hutsa da laguna.

IÑIGO: Badakit baina familia bat daukat, elikatu eta jantzi beharrekoa ...

KILL: Beldurrak hori lortzen du beti.

KARMA: Ba hara hor froga. COVID 19-aren sintomak ezereztatzeko sartzen dituzte hautsak. Gero transformatu direnei inkestak egin, nagusiei informazioa pasa eta txertoa jartzera behartuta gaudela esango digute gure lanean jende askorekin erlazionatzen garena eta ez garenaren aitzakia hutsalarekin.

IÑIGO: Zu batez ere. Garbi utzi duzu eta gizon askorekin oheratzea gustuko duzula.

KARMA: Eta zer?

IÑIGO: Alu bero bat zarela.

(KARMAk zaplaztekoa emango dio IÑIGO-ri)

IÑIGO: Hau ez da horrela geldituko?!

KARMA: Geldituko ala geratuko?!

KILL: Beno, lasaitu gaitezen mesedez. Konspiranoiko bihurtu zara bat-batean ala Karma?!

KARMA: Konspiranoiko ni? Ez al zara konturatzen ala? Tipo hau botere Kristau Demokrataren zerbitzura lan egiten duen zakur zikin bat beterik ez da. Zakurra baino okerragoa oraindik, KOIOTEA! ORTUZAINAREN ZAKURRA!

KILL: Perro del hortelano Karma.

KARMA: Beno ba hori! Perro del hortelano! Ez dizula inkesta behar bezala bete arazi ezta?

KILL: Ez. Nola dakizu hori?

KARMA: Zurekin ligatu nahi zuelako seguru aski Kill!

IÑIGO: Nire sexualitateak ez du inolako zer ikusirik nire profesionaltasunarekin.

KARMA: Baina ez duzu zure lana behar bezala egin ezta?

IÑIGO: Behar bezala egingo banu informea pasa eta biek txertoa jarri beharko zenukete.

KILL: Baina txertoa jartzea ez da nahitaezkoa ezta?

IÑIGO: Ez. Oraingo.

KILL: Oraingo? Horrek ze esan nahi du?

IÑIGO: Pandemiaren nondik norakoak aztertzen joan ala denborarekin nahitaezkoa bihur litekeela. Transformazioa bizitzen ari zaretenek ere hala egin beharko duzue denborarekin.

KARMA: Ikusten Kill? Ezingo dugu inoiz libre izan. Denok behartuko gaituzte txertoa jartzea ekonomiaren hobetarako eta abar, eta abar, eta abar, ...

KILL: *(Iñigori)* Egia da hori?

IÑIGO: Gutxi gora behera...

KILL: Hau bai ez nuela espero. Hobe izango duzu hemendik joatea.

KARMA: Bai, hobe izango duzu.

IÑIGO: Banoa bai. Baina hobe izango duzue zuen transformazioari buruz behar bezalako hausnarketa egitea. Pandemiak ez du ez politikan, ez erlijioan eta ezta ekonomian sinesten.

KARMA: Ezta zientzian ere!

(IÑIGO-k alde egingo du)

KILL: Ondo zaude Karma?

KARMA: Orain hobeto bai.

(Kill-en telefonoak joko du)

KILL: Bai?... Kaixo Kerra! Non sartu zara? ... Kilkertalunyako lehengusuarekin telefonoz hizketan? Eta zergatik ez didazu ezer esan? Zure bila ibili naiz ... Karma dago hemen ... bai, zure maitalea ... beno, gure maitalea ... bai dena kontatu dit. Beno dena ez, egiaren hasera ... hobe lehen bai lehen etortzen bazara bai ... funtzionarioa? Eta nola dakizu zuk funtzionarioa hemen zegoela?... Beno baina ze kristo?! Hemen mundu guztiak du besteen berri nik ezik ala?... beno bai. Hemen izango gara zure zain ... agur bai.

KARMA: Kerra al zen?

KILL: Ez, Ama birjina.

KARMA: Haserre zaude Kill?

KILL: Haserre ez, triste.

KARMA: Zatoz hona.

(KILL KARMArengana hurbilduko da. Honek besarkatu egingo du eta kantatzen hasiko da)

KARMA:

Rossinyol, que vas a França,
rossinyol,
encomana'm a la mare,
rossinyol,
d'un bell boscatge
rossinyol d'un vol.

Encomana'm a la mare,
rossinyol,
i a mon pare no pas gaire,
rossinyol,
d'un bell boscatge
rossinyol d'un vol.

(Elkarri besarkatuta jarraituko dute. KERRA azalduko da)

KERRA: Kaixo bikote. Nire desagerpena probestuz ez duzue denbora galtzen eh?

KILL: Ez da zuk uste duzuna Kerra. Zu ere Kilkertuta zatoz.

KERRA: Zer?

KILL: Buruko antenak Kerra.

(KERRAK burua ukituko du)

KERRA: Zer da hau?

KILL eta KARMA: *(Barrez)* Transformazioa, ja,ja,ja,ja, ...

KERRA: Ze transformazio?

KILL: Guk ere ez dakigu. Baina ez dugu etsiko gure askatasunaren bidean.

KERRA: Askatasuna Kaioletako Kilkerrei falta zaiena da. Gu ondo baino hobeto bizi gara.

KILL: Gure bizitza gero eta itogarriagoa da.

KERRA: Baliteke. Zer moduz Karma?

KARMA: Hasta los collons. (*Elkarri besarkatuko diote*) Eta zu?

KERRA: Orain hobeto.

KERRA: (*abestuz*)

Uso zuria errazu
nora joaten zaren zu.
Euskal Herriko mendi guztiak
elurrez beteak dituzu;
gaurko zure ostatu
gure etxean baduzu. (bis)

KARMA: (*Erabat hurtuta*) Aaaaaiiii ... ze bero jartzen nauzuen
Kilkerskaudiko Kilker kantariak ... krintalariek.

(*KILL- ek biak besarkatuko ditu eta hirurak elkarri besarkatuta kantuan
joango dira kanpora*)

KILL, KERRA eta KARMA:

Rossinyol, que vas a França,
rossinyol,
encomana'm a la mare,
rossinyol,
d'un bell boscatge
rossinyol d'un vol.

Encomana'm a la mare,
rossinyol,
i a mon pare no pas gaire,
rossinyol,
d'un bell boscatge
rossinyol d'un vol.

(*KILKERRA agertuko da berriz ere*)

KILKERRA: Beno ba, honaino iritsi da gure ipuina. Edo ipuinaren zatia. Ez dugu ipuina behar bezala kontatu. Argi dago. Kilkerra utzi dugu bere kaiolan sartuta, letxuga jaten eta kaiolako atea irekita egon arren barruan geldi. Ez dugu jakin Kilkerrak zer egin ote zuen gero. Kilkerra aitzakia hutsa izan da agian. Hitchcock-en gure McGuffin partikularra. McGuffin. Zer ikusirik ez McMurphyrekin. Gogoratzen duzue Mc Murphy? Alguien voló sobre el nido del cuco pelikulakoa? Jack Nicholson? Hark ez zuen kaiolatik alde egitea lortu. Indioak bai berriz.

Eta guk? Kaiolan jarraituko dugu letxuga jaten? Edo libre izatea lortuko dugu?

Beno jarrai dezagun ipuinarekin. Non utzi dugu? ... Ah, bai.

“Arratsaldea zendutako ama oroitzuz pasatzen zuen. Hori da. Arratsaldea zendutako ama oroitzuz pasatzen zuen. Arratsaldea zendutako ama oroitzuz... hiltzen zuen ...

JOSEBA SARRIONANDIAREN OLERKIAN OINARRITUTAKO ETA MIKEL LABOAK KANTATUTAKO “OROITZEN ZAITUDANEAN AMA” KANTA ENTZUNGO DUGU. KILKERRAK DANTZA EGINGO DU KANTAREKIN ETA PIXKANAKA KANPORANTZ JOANGO DA.

ILUNA